

Trebiñu, euskararen herrian (sarrera-hitzaldia)

GONZALEZ DE VIÑASPRE, Roberto

Euskaltzain osoa

Trebiñu Konderriko alkate andrea, euskaltzainburu jauna, agintari agurgarriok, euskaltzainkideok, etxekook, lagun preziatuok, jaun-andreok: egun on digula guztioi.

Iazko otsailean Iruñean euskaltzain osoen konfiantza jaso eta beren artean euskaltzainkide onetsi nindutenean, horrexekin batera hartu nuen sarrera-hitzaldia idazteko mandatua. Une hartan urruntxo begitantzen zitzaidan gaurko ekitaldia, baina Lazarraga arabarrak XVI. mendean idatzi zuen moduan, “biarreñac urrean datoz”. Izan ere, urruti nekusan eguna azkar hurreratu zait, galopan bezala.

Atseginez eta gogo onez natorkizue prestatu dizuedan mintzaldia eskaintzera. Ohore handia da zuen aurrean agertzea, eta, jakina, beste horrenbesteko erantzukizuna ere bai. Gainera, erronka zorrotza jarri diot nire buruari: nahi nuke aletuko ditudan kontuak interesekoak izatea zuentzat guztiontzat eta, ahal dela, inorentzat gogaikarri ez gertatzea. Horra hor asmoaren handinahia!

Gogobetegarri dut sarrera-hitzaldia bihotz-buruak agintzen didan lekuan irakurtzea, non eta bizialdiaren erdia baino gehiago eman dudan lurrean, trebiñarren aurrean, eta euskaraz. Halaber, gogobetekoa zait XIII. mendean eraikitako Done Petri eliza euskararen Akademiaren bilgune izatea gaurko ekitaldian. Mendetako harlandu hauek historiaren adierazgarri dira. Iragana zintzo uztartzen dute orainarekin. Hitzaldian saiatuko naiz erakusten horma hauek, gaur baino lehen ere, trebiñarren euskarazko mintzoaren lekuko izan direla, harik eta Ihuda ibaiak bustitzen duen arroan XVI-XVIII. mendeetan barrena euskal hizkuntza galdu zen arte. Ez dut lurralde honetaz Trebiñu Konderriaren gaurko adiera administrati-boarekin soilik hitz egingo, baizik eta ikuspegi historiko eta kultural zabalagoarekin, Donemiliagako Reja izeneko XI. mendeko dokumentuan aipatzen den *Rivo de Ivita* barruti osoa hartuz. Bestalde, ez dagoke sobera ohartaraztea hitzaldiaren erdigune dudala euskal toponimia eta euskararen hedapen-muga historikoak. Ez diot oraingoan helduko, hortaz, gaztelaniari eta gaztelaniatzko toponimiari. Espero

du hautu horretatik inortxok ez ateratzea egiazkoa ez den ondoriorik. Ez dago horretan errealitate erromanikoaren ezeztapenik batere. Gaztelaniak antzinako presentzia du lurralde honen sartaldean, eta ausaz elebitasun-egoera luzea izan da Trebiñu Konderriko beste zenbait inguruan. Dena dela, euskara ere trebiñarren kultura ondarea da, berezko errealitate linguistikoa, egiaztatuko dugunez.

Gaiaren funtsari heldu aurretik, berariaz hitz egin nahi dut Patxi Uribarren euskaltzainaz. Iazko otsailetik partekatzen dugu biok Euskaltzaindiaren 18. aulkia. Bai eroso partekatu ere aulki bera, batere estutasunik gabe. Jakizue Akademian hala zenbakitutako aulki fisikorik ez dagoela, eta soilik dela euskaltzain-postua izendatzeko modua. Patxik, emeritu mailara igarotzean, euskaltzain osoarena atxiki du, baina tokia egin dit bere aulkian, adeitsu. Denbora gutxian nekez laburbilduko dut euskararen alde adorez egina duen eta burutzen jarraitzen duen lan oparoa. Bizitzako urte asko eskaini dizkio Patxik arima-arimatik maite duen euskarari. Hogeita lau urteko gaztea zela, frankismoaren urte latzetan, Bilboko Santutxuko gau-eskolen sortzaileetakoa izan zen, gero AEK izango zena, eta hamabost urtez eman zituen eskolak bertan, euskararen hauspoari eraginez.

Karmeldarra dugu euskaltzain arabarra. Teologian eta Filosofia eta Letretan lizentziaduna. Euskararen Akademiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1971n, eta oso 2008an. Urte hartan Euskaltzaindiak hautatu zuen Henrike Knörr-en lekukoari oratu ziezaion. Handik gutxira, sarrera-hitzaldia irakurri zuen Aramaion, bere sorlekuan. Euskaltzale guztiok gure egin dezakegun izenburua eman zion: “Izan zirelako gara, eta garelako izango dira”. Euskaltzaindian era guztietako alorretan jardun du Patxik: irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, euskalkiak, euskararen sustatzea eta abar. Onomastikari ere ekin dio bere ikerketa ibilbidean. Filologia Erromanikoaren lizentzia eskuratu zuen 1974an Aramaioko toponimiari buruzko lanarekin, Mitxelenaren zuzendaritzapean.

Erretiroa hartuta dago Bizkaiko Foru Aldundian itzultzaile izatetik. Lan jarduera horrek erlazio estua du hiztegi-gintzarekin, *Bostak bat* taldearen sortzaileetakoa izanik, nabarmen landu duen arloarekin. *Adorez* sortan hiztegi baliagarriak gauzatu dituzte. Oraingoz azkena *Hiztegi praktikoa 3000* izeneko lanabes mardula dugu. Ale bat oparitu berri dit Patxik, eskuz sinatua, eskaintza eder honekin: “zure bizitzako ibilbidean hain garrantzitsua dugun egun honetan bihotzez eskaintzen dizut nire azken lana”. Mila esker, Patxi. Bihotzez estimatzen dizut.

Natorren orain beste gai batera, hitzaldiaren izenburuak agintzen duen mamira-

ino iritsi aurretik. Zerbait kontatu nahi dizuet nire hizkuntza-biografiaz. Uste dut hartarako abagunea dela. Bilbon jaioa nauzue, bertan hazia eta hezia, euskararik ez zegoen familia-giroan. Atzera begira, amaren aitona bat genuen azken euskalduna. Bizente Aristondo elgoibartarra Karrantza haranera joan zen XIX. mende hondarrean, Kadaguako burdinbidegintzan lan egitera. Dinamitarekin aritu zen Villaverde Turtzioz eta Karrantza haranak lotzen dituen La Escrita tunela irekitzen. Bizentek oso hurbil aurkitu zuen bere bidearen geltokia, ondoko El Suceso auzora ezkondu zelako Rogeliarekin. Gure amamak ume denborako gomuta zuen aitaren belaunetan eserita egoten zenekoa, otoitz-liburu batetik irakurriz euskaraz errezoan entzuten zion bitartean. Hala ere, oroitzapen lausotua zen amamarena, bost urteko neskatoa zenean hil baitzitzaion aita, hernia estutze baten ondorioz.

Aitaren familia-adarretik ere ez genuen euskararik jaso. Gure aita gasteiztarra da sortzez, eta aitita-amamak, bata Arabako Errioxako Ekora herrikoa eta bestea Trebiñu Konderririk mugakide duen Lagran herrikoa. Gazte-gazterik atentzioa eman zidan euskal itxurako zenbat leku-izen ziren Lagranen. Deigarria egiten zitzaidan hura, nire ezjakinean uste bainuen sekula ez zela euskararik mintzatu Arabako hegoalde horretan. Toponimiak erakusten duen bestelako errealitateak, ordea, jakin-mina piztu zidan. Zer-nolakoa zen Arabako arbasoek aho-mintzoan zerabilten euskara? Noiztsu galdu zen? Garai hartan sortu zitzaidan euskal hizkuntzarekiko interesa, motibazio horrekin. Hamabost urte edo izango nituen euskara ikasteari nire kabuz lotu nintzaionean. Gure etxean ez zegoen liburu askorik, orduko etxe gehienetan bezalatsu, baina, zeudenen artean, zorionez, Xabier Peñaren *Euskal Irakasbide Laburra* aurkitu nuen. Lan isilean ematen nituen ordu askotxo, bakar-ka, euskara nire ingurutik urrun imajinatzen nuen Basurtu auzoko etxeko gelan. Geroago jakin nuen gure eskailera bereko Meli auzokidea, amaren laguna, euskal poeta baten alarguna zela. Alegia, Gabriel, bere senarra, Gabriel Aresti zela.

Batera eramán dut euskararekiko eta toponimiarekiko jakingura, eta jakin-nahi horrek bereziki Arabakoa lantzerá bultzatu nau. Bizitzaren bidegurutzetako batean, Trebiñu Konderriko Saseta herrian errotzea erabaki genuen Carmen emazteak eta biok. Hogeita hamar urte baino gehiago eman ditut hemen, eta auzotasun horrek erraztu dit bertoko historia linguistikoa ikertzea, batez ere toponimiaren bitartez.

Eta hitzaldiaren muinera iritsi gara. Denboran atzera egingo dut gaien aurrera egingo badugu. Horretarako, beste bi arbaso aurkeztuko dizkizuet: Maria Landa eta Formerio Mesanza senar-emazteak. Aitaren aldetik, gure amamaren herenaiti-

ta-amamak ziren. Formerio 1749. urtean sortu zen Lagranen, eta berandu ezkondu zen, 47 urterekin. Aldiz, Maria emaztea 22 urteko neska gaztea zen, urrundik etorria. Gernikarra zen Maria, Mendatatik Gernikara aldatu berriak ziren gurasoen alaba. Nago ezkontza-akordio hura kokatu behar dela mandazainek Bizkaiko itsasaldeko arraina Errioxara eta itzulian ardoa eta olioia Bizkaira garraiatzen zuten garaiko testuinguruan. Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa itsas portuetako garraio-bidea Gernikan batzen zen; ondoren, Durangaldea pasatu, Urkiola igo eta Arabako Ubarrundian barrena igarotzen ziren mandazainak. Gero, Trebiñu Konderria zeharkatu eta, Lagran ondotik, Errioxa aldera iristen ziren. Mendetako merkataritza-bidea izan zen hori.

Maria Landa euskalduna zela dudarik ez dago. Areago, uste izatekoa da euskaraz baino ez lekikeela 1796. urtean Lagranera ezkondu zenean. Halakoxea zen orduan Bizkaiko egoera soziolinguistikoa. Historiaren Akademiaren 1802ko Hiztegian jasotzen denez, “los más, exceptuando la gente culta, no saben otro idioma que el vascuence, salvo en las Encartaciones y villas de Portugalete, Valmaseda y Lanestosa, donde tan solo se usa el castellano”. Garai bertsuan dokumentatuta dago Araban emakumeen euskarazko elebakartasuna. Barrundiako Marieta herrian, 1783. urtean, bertako kontzejuak baiezkoa eman zion presbitero erdaldunari elizako kapilautza hartu zezan, baldin eta abade zerbitzari euskalduna hartzen bazuen, bertako eliztar gehienak zaindu ahal izateko, “especialmente las mujeres, que no sauen otro idioma”.

Zer hizkuntza-egoera aurkituko zuen Maria Landak Toloño mendilerroaren ipar magalean? Bazukeen gaztelania ikasi bitartean norekin hitz egin euskaraz? Trebiñu Konderriko ekialderako ditugun datuek iradokitzen dute euskararen transmisioaren etena XVIII. mendeko lehen erdian zehar gertatu zela. Bere senar Formerio euskalduna ez zatekeen arren, bazegokeen artean aurreko belaunaldietako euskaldunik, eta, ausaz, euskaraz egin zezakeen Mariak adin handieneko lagrandarrekin. Gainera, euskara hura ez zitzaiokeen nabarmen arrotza gernikarrari, funtsean mendebaleko hizkera bide zelako. Toponimoek lexikoaren berri ematen dute, oro har, eta, neurri mugatuan bada ere, informazio nahikoa dugu jakiteko, besteren artean, ‘barri’, ‘baltz’, ‘aretx’ edo ‘lexa’ esparrukoa zela inguru horretako euskara.

Lagrango artzain-ordenantzek argi-izpi bat ematen dute euskararen egoeraz. Ordenantza horiek 1726. urtean egindako aldatze-agiri batean iritsi zaizkigu, eta galdua da jatorrizko dokumentua. González Salazarrek eginiko transkripzioak hala dio: “que llamen a las ganaderías cada una por su nombre [...] los vuierços aran

su reclamo en mitad de la calle real de esta villa llamando oquela, oquela, oquela, y el pastor de los machos aga su reclamo mandua, mandua, mandua [...] y el de los zerdos aga su reclamo urdiac, urdiac, urdiac y el corderizo aga su reclamo curdiac, curdiac, curdiac [sic]”. Okerra da azken hori, bistan da, ‘ardiac’ izan behar bailuke. Zein dateke akats horren zioa? Eskribauaren hutsa ote da hitzaren esanahia iluna zitzaiolako? Ordurako lagrandarrek euskara zeharo galdua zuten seinale ote da?

Gertagarriagoa iruditzen zait lehen ustea bigarrena baino. Arauzko testua da, ordenantza izaera duen agiria, eta halakoetan ez ohi da transkribatzen indarrean ez dagoen terminorik, erabiltzen ez denik. Ez bederen zaharkitua dela ohartarazi gabe. Kasurako, hala diote Lagrango XVI. mendeko beste ordenantza batzuek: “hordenamos [...] que ninguno que no tenga diez y ocho años cumplidos no sea recibido por ganadero [concejil] que en vocablo antiguo llaman velach”.

Nire iritzian, ordenantzetan azienda biltzeko ageri diren dei modu horiek euskara ordura arte erabilia izanaren zantzua dirateke. Hala ere, badakigu garai bertsean, sartalderago, Urizaharrean, etenda zegoela euskararen belaunez belauneko transmisioa. Hiribildu horretan jaio zen Lorenzo Prestamero ilustratu eta humanista, 1733. urtean. Bertakoak zituen bai gurasoak, bai aitita-amamak. Humboldt eruditoak Euskal Herrira egindako bidaiia-egunkarian jaso zuenez, Prestamerok ez zekien euskaraz. Humboldttek Gasteizen ezagutu zuen Prestamero, eta gidari izan zuen Arabako gaietarako.

Aldiz, oso litekeena da Lagranen Formerioren gurasoak euskaldunak izatea. Ama, Baltasara Martínez de Bergara, bertakoa zuen. Aita, ordea, trebiñarra, 1703. urtean Lañun sortua. Alde horretatik zetorkion Formeriori ponte izena, santu hori Trebiñu Konderriko patroia baita. Bere izenpeko ermita Pangua herrian dago. Tradizioak dio bertan kutxa batean gorderiko burezurra San Formerioren dela. Jakizue Formerio izena –baita Formeria aldaera ere– aski ohikoa izan dela trebiñarren artean, eta erabilera goren XVIII. mendean lortu zuela. Gasteizko Elizbarrutiaren Arxibo Historikoan 1900. urtera arte Trebiñu Konderrian bataiatutako Formerio guztietatik % 44 pasatxo XVIII. mendekoak dira. Zer diren modak eta sasoiak sasoiak joerak! Gaur egun, ordea, ez da ageri Formerio izenik Estatistika Institutu Nazionalaren emaitzetan.

Toponimia-ikerketak gehixeago argitu diezaguke Lagran eta Lañu inguruko egoera linguistikoa XVIII. mendearen hasieran. Izan ere, eremu geografiko txikiko toponimoak, –hau da, gertuko espazio fisikoa (iturriak, muinoak, soroak eta beste) izendatzeko direnak– tokian tokiko hiztunek berezkoa duten hizkuntzan sortuak

izaten dira, edonon eta edonoiz. Horregatik, toponimia historikoak nabarmen laguntzen du eskualde jakin bateko historia linguistikoa ezagutarazten. Aski informazio argigarria ematen du. Euskarazko leku-izenak dokumentazio historikoan sistematikoki itxuraldatzen hasten direnean, bertako eta orduko hiztunentzat ulertezin bilakatu diren seinale dira. Belaunetz belauneko transmisioa moztu eta euskara komunikazio-sistema bezala galdu izanaren egiaztapena da.

Arestian aipatu dizuet gazterik harritu ninduela Lagranen, amama Amaliaren jaioterrian, euskal itxurako leku-izenak zeudela jakiteak. Ugariak dira, gainera. Dokumentazioak frogatzen du XVIII. mende hasieran bere horretan erabiltzen zirela euskarazko izenak, itxuragabetze nabaririk gabe. Kasurako, 1725eko ordenantzetan “las lagunas de Zornoste[gl]yeta laqua” aipatzen da. Gaur galdua da izena, beste asko bezala.

Itxuraldaketa gogorak gertatu daitezke toponimoa osatzen duten elementu lexikalak jadanik ulergarriak ez izategatik. Esaterako, Lagran eta Trebiñu Konderriko Lañu eta Baxauri herrien arteko mugarriak berrikusteko 1760. urtean egindako bisitan aipatzen da “la cumbre [...] do dicen Vagacederra”. Lehenago ere dokumentatzen da toponimo bera, 1606. urtean, Lañuko agiri batean. Osaera gardena du: *Bagatza* + *eder* + artikulua (‘pagadi ederra’). Gaur egun, ordea, *Cabezaerra* esaten diote, desitxuraturik.

Ohartaraztekoa da Araba gehienez, *fagus sylvaticarako*, *bago* izan dela euskarazko hitza, eta ez *pago*, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasean pago* hitzak Bizkai-Gipuzkoetan egun duen hedadurak besterik iradoki badezake ere. Trebiñu Konderriak Gas-teizko Udalerriarekin partekatzen duen mendi-gailurretako bat *Pagogan* izenarekin ezaguna izateak pentsarazi dezake kontraesanean dagoela esan dudanarekin. Ez da horrela. *Pagogan* izendapena ez da jatorrizkoa, baizik eta gaizki berreraikitako aldaera bat, azken hamarkadetan kartografiaren eta mendi-katalogoen bitartez zabaldua. Lehen elementua *pago* hitzaren itxuragabetzea dela uste izatean datza okerra. Uste ustela da, hala ere, funts dokumentalik ez duena. Inoiz ez da ageri *Pagogan* agiri zaharretan. *Palogan* izaten da beti, gutxienez 1608. urteaz geroztik.

Trebiñu Konderriko ekialdean agerikoa da gaur egun ere euskarazko leku-izenen presentzia. Erdetik gora dira oraindik, itxuraldaketak gorabehera, jatorriz euskaraz sortutako toponimoak. Maizago eta osoago ageri dira XVIII. mendeko dokumentuetan. Euskal izen arruntik ere aurkitu ohi da gatzelaniazko testuetan txertatu-

ta. Paritza herriko adibide interesgarria dago Ensenadako markesaren katastroan, 1753. urtean. Herriko eraikinen artean aipatzen da “una cabaña dentro del pueblo do dicen el Garai para recoxer las mieses en el Agosto”, hau da, euskarazko *garai* hitza erabiliz, gaztelaniazko ‘hórreo’-ren orde. Halakoak jaso zituen López de Guereñuk joan den mendean, *Voces alavesas* lanean. *Garai* ez dago bilduma horretan. Oraindik euskal hitz hondarrik bilatu daiteke Trebiñu Konderriko lexikoan, testu zaharrak arakatuz; nekezago hiztunen ahotik, bizimodu tradizionalarekin gertatu den hausturagatik eta herri kulturaren galeragatik.

Gogoan dut Sasetan adin handiko hiztun batekin bizitu nuen gertaera. Duela hogeita hamar bat urte izan zen. Bi topografo etorri ziren Sasetara neurketa batzuk egitera, eta, hartarako, jeep batean joan ginen laurok, basoan barrena, zenbait mugarri ikuskatzera.

–Oiga –galdetu zion topografoetako batek–. En estos bosques tiene que haber tejos, ¿no?

Herriko gizona zer erantzun ez zekiela lotu zen. Ez zion gaztelaniazko hitza ulertu.

–Le pregunta si hay aguines por aquí –esan nion nik. Orduan berehalako erantzuna eman zion Sasetako gizonak.

–Sí, hay bastantes, sobre todo en la parte de Arangatxa.

Agin hitza bildua du López de Guereñuk, baina Arabako Mendialdeko Apilaiz eta Haranera mugatuta. Aldiz, Sasetako gertaerak erakusten du Trebiñu Konderraren ekialdean ere bizirik egon dela gaur arte.

Atzera eginez, XVI. mendean aurkitzen dugu euskara hizkuntza mintzatua zeneko lekukotasunik, Trebiñu Konderriko ekialdean. Esaterako, 1519. urtean, Salinasko kondeak auzitara eraman zituen Lañuko herritarrak eta kontzejua. Zergatia zen aurreko lau urtean ez ziotela kondeari ordaindu Urizaharreko baleztariak Las Cruces eta Goikogana basoak zaintzeagatik. Auziaren lekukoek deklaritzen dute baleztari horiek Trebiñuko beste herri batzuei ere kobratzen dietela zaintza-lana, eta sari horren izena ematen dute: “bagasaria que quiere decir en romance montería”. Jatorriz, txerriak elikatzekeko pago-ekurren gozamenarekin lotuta zegokeen bagasaria.

Markizen, 1569. urteko mugarri-bisita batean hala jasotzen da: “en el camino que van los de Marquínez a Quintana que se dize en vascuence Quintaravidea”.

Antzeko datu gehiago agertuko dira aurrerantzean, iturri dokumental gehiago aztertu ahala, eta ikuspegi osatuxeagoa lortuko dugu euskararen hedapen historikoaz. Azken datuetakoa dugu Fernando Maiorak *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases* liburuaren hitzaurrean laburki aipatzen duena. Gaztelako armadaren soldadu baten aurka 1558. urtean egindako prozesu kriminalaren berri ematen da bertan. Arkabuzariak *Juan Pascoal de Tribino* gaitzizena darabil, eta euskalduna da lekukoaren deklarazioen arabera. Jakin-goseak eraman nau Iruñean eskuizkribu mardula zuzenean kontsultatzera, Nafarroako Errege Artxibo Nagusian. Pedro Uribarrenaren lankidetzatza baliotsu eta eskuzabala izan dut horretarako. Pedro artxibozaina da ofizioz eta, oroiz gain, lagun mina. Artikulu ugari plazaratu ditugu elkarrekin. Aitortzen dut nekez gauzatu nitzakeela hainbat lan, dokumentuen transkripzioan lagundu ez balit.

Eskuizkribua irakurririk, jakin dut Juan Pascoal delakoa Zangozako kartzelara eraman zutela Nabaskozen gizon bat hil izanaren akusaziopean. Gorpua gorde eta krimen zitala ezkutatzeko gutun faltsuak helarazi zizkion alargunari, senarra Galiziako Santiagora joana zela sinetsarazteko. Iruzur bera erabili zuen zazpi urte lehenago aita soka batez ito eta gorpua haitzulo batera jaurti zuenean. Orduan hildakoaren emazteak bi gutun jaso zituen. Ardura hori hartu zuen Juan Pascoal gaiztoak, senarra bizirik eta Donejakue bidean zegoela sinetsi zezan ama gaixoak. Gaizkin horren doilorkeriak aipatzea ez da hutsala. Beharrezkoa dugu, tamalez, interesatzen zaigun istorioaren haria jarraitzeko.

Kasua da hiltzaileak bere herria utzi zuela, justiziatik ihesi, eta soldadu sartu zela. Zaragozan jatorrizko izena aldatu eta Juan Pascoal izen faltsua hartu zuen, bere arrastoa ezabatu nahian. Ahaleginak ere egin zituen nongoa zen ezkutatzeko. Aitzitik, instrukzio judizialerako ezinbestekoa zuten erruztatuaren identitatea argitzea.

Prozesu kriminalak konpainiako soldaduen deklarazioak biltzen ditu. Horietako batek dioenez, “luego que [Juan Pascoal] se asentó en la dicha companya, azia como aquel que no entendía vascuence”. Beste lekuko bati Juan Pascoalek esan zion Medina del Campokoa zela. Baina, lekukoak ez zion egiantzik eman, “viendo que ablaba vien vascuence”. Horregatik, “le tornó a preguntar de donde hera y le res-

pondio que hera de Treviño”. Lope de Cegama izeneko soldaduak dio “aberle oydo dezir que es natural de Trebino y otras vezes de Greño [sic, *Guereño*] a una legoa de Salbatierra, y que por lo que este testigo entiende de la lengua vascongada le paresçe que su bascuence del dicho Juan Pascoal es de azia tierra de Amescoa, y no de la parte de donde el dize”. Juan Fernández de Yarçak deklaratzan du “que [Juan Pascoal] dize y abla muy vien bascuence, y tan vien como este testigo, [...] y que en Trebino sabe que no se abla bascuence”.

Nongoa ote zen zinez harako Juan Pascoal hura? Ikerketa aurreratua zegoela, Arluzea herriko hiru lekuko deitu zituzten Iruñera: Juan de Albaina, Juan Ochoa de Urarte eta Santiago de Arriluzea. Kartzelan, zazpi preso erakutsi zizkieten, eta hiru lekukoek gizon bera ezagutu zuten, nork bere aldetik. Aho batez adierazi zuten “que el dicho hombre se llama Andres de Arriluça, y no Juan Pascoal, y que es natural del dicho lugar de Arriluça”. Puntu honetan lagako dugu istorioa. Oraingo jakin-nahia ase dugu. Ihuda ibaiaren goi arroan XVI. mendearen bigarren erdian euskaraz hitz egiten zela jakitea izan dugu.

Toponimia historikoak berresten du euskara hemen zegoela garai horretan, eta XVIII. mendearen erdira arte iraun zuela. Ez da falta adibide argigarrik. Sasetan kasu, egun erabiltzen den *Arbitea* leku-izena XVIII. mendearen bukaeran ageri da lehen aldiz. Itxuraldatu aurreko forma *Erbitegia* zen, eta, gutxienez, 1742. urtera arte erabili zen horrela. Orobat, aipagarria da, Markiz eta Urarte arteko mugan, XVI. mendetik dokumentatzen den *Isasburua* edo (*I*)*saspurua* izena. Horrela ageri da XVIII. mendearen erdira arte, bertakoentzat ulergarria zen seinale. Itxuragabetua azaltzen da lehen aldiz, 1790. urtean, gaur ere erabiltzen duten *Sanpurga* aldaerarekin, balizko santu apokrifiko baten itxura hartuta.

Uste dut Trebiñu Konderriko ekialde gehienara zabaldu daitekeela egoera bertua. Marauriko eta Sasetako toponimian agerian geratzen da bi herri horietan euskal hiztunik bazegokeela XVIII. mendearen bukaeran. Batean zein bestean, ordura arte, toponimoen % 80 inguru euskaraz dira, itxuragabetze nabarmenik gabe. Gaztelaniazko filiazioa duten izen gehienak, aldiz, XIX. eta XX. mendeetako dokumentuetan ditugu lehenik.

Guztiarekin ere, euskararen historia ez da berdin Trebiñu Konderri osoan. Ikusi dugunez, Juan Pascoal ezizenekoaren kontrako prozesu kriminalean lekuko batek

dio Trebiñun ez dela euskaraz hitz egiten. Dokumentuaren testuinguruan ulertu behar dugu Trebiñu hiriburuz ari dela, ez konderriaz oro har. Izan ere, lurraldearen sartaldeko muturrean ia ez dago euskal leku-izenen aztarrenik. Argantzoren eta Billa-Oka herrietan ez dago gaur halako toponimorik, *Basondo* eta *Gucialde* izan ezik. Biak Trebiñu Konderriko mugapearen marran daude. Panguan eta Burgetan ere ez dirudi euskararen arrastorik dagoenik, XVI. mendetik behintzat. Bai, ordea, hortik oso gertu, sortaldeko herri mugakideetan. Dokumentazioaren argitan, euskararen gehieneko hedapen historikoa Ozilla-Ladrera, Añastro, San Esteban eta Morgas herrien lerrotik bide zihuan, iparretik hegora, herri horiek guztiak barne hartuz.

Ziurrenik, XVI. menderako galdua zen euskara mendebaleko herri gehienetan, eta galera Trebiñu hiribururaino iristen bide zen. Hiribildua franko handia zen. Harresiz inguratua eta muino gainean gaztelua zuela, 250 familiagune biltzen zituen 1556. urtean. Gauden Done Petri eliza honezaz gainera, beste lau parrokia-eliza zituen Trebiñuk. Ez dugu informaziorik konderriko hiriburuairen egoera linguistikoz. Gehixeago dakigu Gasteizkoaz, Andrea Navagiero italiarrak 1563. urtean kontatua: “en la ciudad de Vitoria se habla castellano, pero entienden también el vascuence, y en los más de los pueblos se habla esta lengua”.

Uste izatekoa da Trebiñuko mugapea inguratzen duten herri gehienetan euskara hitz egiten zela. Trebiñuko kontzejuaren artxiboan gordetzen da *Libro de vareamiento y sexta parte* izeneko dokumentua, 1627. urtekoa. Konderriko herri bakoitzean lantzen ziren lursailak biltzen ditu agiriak, sarritan beren izenarekin, eta, Valladolidetik etorritako eskribauak hainbatetan gaizki transkribatu arren, informazio jorria du. Ohargarria da euskal izen ugari ematen dituela Trebiñurekin mugakide diren Arrieta, Askartza, Bustu, Dordoniz, Golernio eta Franku herrietan. Eta bereziki nabarmentzekoa da Trebiñu herriko mugapean bertan ere badirela euskarazko izen ugari. Batzuk bizirik iritsi dira gaur arte; beste batzuk bidean galdu dira. Erabiltzen direnen artean *Basaran*, *Basarte* eta *Basondo* ditugu. Hirurek euskara garbian adierazten dute gaur soil eta gorri ageri zaizkigun mendi-hegal horiek zuhaitzez estaliak zirela izena jarri zitetenean.

Bertokoek darabilten beste izen bat *Berokia* da. Haizetik babesteko tokia, alegia, Araban Zalduondotik Bernedoraino ageri dena. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasak* Nafarroan ere jasotzen du Abaurregainean, Jaurrietan eta Mezkitzen.

Gaurko toponimoen artean, *Txamurraran* dago. Lehendik dokumentatzen da, *Samurraran* (1644) eta *Chamurraran* (1753). Bigarren osagaia ‘haran’ da, eta lehenak *Samur*, *Txamur* izengoitia izateko itxura du, gaztelaniatzko *Tierno* ezizenak deitura eman duen bezala.

Bigarren osagai bera du egungo *Uñaran* toponimoak. Lehenago ageri da *Unaran* formarekin, 1599an eta 1717an. Litekeena da lehen osagaia *unai* izatea. Jatorriz **Unanaran* dateke eta, ondoren, haplologiak, *Unaran* ‘behizainen harana’.¹

Borunbede da bizirik dagoen beste leku-izen bat. Horrela eta *Borumbide* moduan ere, bietan, ageri da 1753. urtean. Lehen elementua latinezko *molinum*-etik dator. Hortaz, ‘errotar bidea’ adiera du, eta hala da, Golernioko errotara baitzeraman bideak.

Campas de Arpidia esaten zaio gaur herriaren iparraldeko leku bati, gazteluko muinoaren atzean. “El camino que llaman de Arpidia” ageri da 1753. urtean. Osagaiak *ardi* eta *bide* dira, artikulua gehituta.

Leku-izen gehiago aipatu daitezke, egungoak eta lehengoak, hala nola “el río de Zabala” (1627), *Asua* (1753), eta “el puente de Maricuzubia” (1773), baina nago aski lagin argia dela ohartu gaitezen historikoki euskara ez dela arrotza hemen, berezko hizkuntza baino, eta, ondorioz, Trebiñu Konderria, eskubide osoz, Euskararen Herriaren parte dela. Trebiñu Konderriaren historia linguistikoa, euskararen eta gaztelaniaren arteko harremanaren ezaugarriak eta kronologia idatzi gabe daude oraindik, zenbait aurrelan egin badira ere. Ezin zitezkeen nire asmoa izan halakoa gauzatzea gaurko hitzaldi xumean. Hala ere, pozik nengoke aurkeztu ditudan datuetan eginkizun horretan lagundu dezakeentxorik balego.

Amaitzen joateko, azpimarratu nahi dut, hitzaldiaren izenburuarekin bat etorritik, euskara Trebiñu Konderriko kultura ondarearen ezinbesteko osagaia dela. Ageri errealitate linguistikoa da iraganean ez ezik gaur egun ere. Eskertzekoa da Argantz on ikastolak 2003. urteaz geroztik aurrera daraman hezkuntza-proiektua. Trebiñuko eskola publikoan, aldiz, euskarak ez du tokirik. Ikastetxeko gurasoen elkarteak eta Trebiñu Konderriko Udalak urteak daramatzate euskarazko ikastere-dua eskatzen, baina Gaztela eta Leongo hezkuntza-agintaritzatik ezezko erantzuna

¹ cf. *Una Maizter* ‘mayoral de vaqueros’, Nafarroan 1167an dokumentatua, Mitxelenaren aburuz, **unan maizter*-etik letorkeena.

besterik ez dute hartzen. Goratzekoa da, halaber, Trebiñuko Gutxisolo elkarteak euskararen sustapen sozialaren alde gauzatutako lan eskergea.

Trebiñu Konderrian eta Argantzonen euskarak gaur duen errealitatea ezagutzen dugu Eusko Jaurlaritzak, barrendegiko bi udalen eskariz, eginak dituen azterketa soziolinguistikoei esker. Bost urterik behin burutu da lana, 2002tik 2012ra bitartean. Duela zazpi urteko datuek azaleratu dute bi udalerrietako biztanleen % 22 elebiduna zela eta, horrezaz gainera, biztanleriaren % 17k elebidun hartzailtzat zuela bere burua. Zein da euskaldunen kopurua gaur egun? Tamalez, ez dago jakiterik, azken azterketa soziolinguistikoak, 2017koak, ez duelako bere baitan hartzen Trebiñuko barrendegia. Erauzirik dago, harrigarriro. Ondorioz, ezin esan daiteke 2017ko azterketa soziolinguistikoak Euskal Herri osoa hartzen duenik. Ageriko hutsunea du Arabako erdigune geografikoan. Kezkagarria da gabezia hori ahalik azkarren ez zuzentzea. Egoera honek ikusezin bihurtzen du euskara Trebiñuko barrendegian, neurri ohargarrian. Isilarazi egiten du Gaztela eta Leongo administrazioaren aitortza ofizialik eta babesik batere ez duen euskararen presentzia.

Hitzaldia bukatu behar dut. Trebiñu Konderriko euskararen zidor zaharretan ibili gara. Lehendik trazatutako bide horiek azken buruan orainaldira itzuli gaituzte. Hain zuzen, guk urratu ditzakegun bide berriak gaur egungoak dira, horizonte zabalekoak, etorkizunera garamatzatenak. Euskararen geroa gure erantzukizuna da, eta egunez eguneko gurpilean egiten dugu hautua euskaldunok, euskaraz bizi garenean eta noranahiko baliatzen dugunean. Finean, euskaldunok gara egun eta hemen euskararen osasunaren eta biziraupenaren (edo, aitzitik, ahultzearen eta zokoratzearen) erantzule bakarrak. Ez gaitezen aitzakien atzean babestu. Guri baino ez dagokigu euskara erabiltzea, ez besteri, egunerokoan komunikaziorako sistema baliotsua izan dadin. Hala da Euskal Herri osoan, baita Trebiñuko barrendegian ere.

Bibliografia

González Salazar, J. A., 2005, *Montaña Alavesa. Comunidades y pastores*. Ohitura 11. Arabako Foru Aldundia.

Historiaren Errege Akademia, 1802, *Diccionario geográfico-histórico de España*.

López de Guereñu, G., 1998, *Voces alavesas* (2. argit., Henrike Knörr-en edizioa). Euskaltzaindia.

Maiora Mendia, F., 2011, *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*.

Von Humboldt, W., 1801, *Viaje al País de los vascos*.